ISEI - IVEI

# Rs1.2.4. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4. MAILAN: INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOA.

ISEI·IVEI

**Edizioa: 2016ko abendua**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Inmaculada Tambo
José Ramón Ugarrizada
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Mª Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**
José Luis Tranche
Eduardo Ubieta

**Sarrera** 4

**Rs1.2.4.1 taula eta grafikoa: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.** 5

**Rs1.2.4.2 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenenen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).** 6

**Rs1.2.4.3 taula eta grafikoa: LHko 4. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan (*irakurmena, entzumena, idazmena)* lortutako puntuazio zuzenenen bilakaera, orokorrak eta sexuaren arabera.** 7

**Rs1.2.4.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.** 8

**Rs1.2.4.4 grafikoa: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza. 2015. urtea.**

## INGELESEZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2011 eta 2015[1].

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* duten errendimendu-mailaren inguruko informazioa ematen du. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2011 eta 2015 urteetako Ebaluazio Diagnostikoetan lortutakoak dira emaitzak. Ebaluazio honetan 250 puntuko batez bestekoa ezarri da, 50eko desbideratze tipikoarekin eta hiru errendimendu mailarekin.

Emaitzak aldagai jakin batzuk kontuan hartuta aztertzen dira: sexua, indize sozio-ekonomiko eta kulturala (ISEK), adin-egokitasuna irakasmailarekiko (jaioturtearen arabera), geruzak (ikastetxearen titulartasuna[2], hizkuntza-eredua[3]), aitaren eta amaren ikasketa maila, jaiolekua eta familiako hizkuntza.

*Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, 2015eko ebaluazio diagnostikoan, errendimendu maila altuenetik baxuenera, ikasleen ehunekoa honako hau izan da: % 55,2 erdiko mailan, % 21,4 maila aurreratuan eta % 23,4 hasierako mailan. Maila aurreratuan eta erdiko mailan, nesken ehunekoak mutilen ehunekoa gainditzen du: 2,7 puntu eta 2,6 puntu hurrenez hurren; hala eta guztiz ere, hasierako mailan, mutilen ehunekoak nesken ehunekoa gainditzen du (5,3 puntu).

Batez besteko puntuazioak geruzen arabera aztertu ostean, ikus daiteke puntuaziorik altuena itunpeko A ereduari dagokiona dela (286); B (258) eta D (256) ereduak datoz jarraian. Sare publikoaren baitan, D eredua (238) da puntuaziorik altuena duena eta A eredua (212) puntuaziorik baxuena duena.

*Ingelesezko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* guztizko batez besteko puntuazioa 247 puntukoa da, 2011ko guztizko puntuazioa baino 3 puntu baxuagoa (250 puntu). 2015eko edizioan, nesken guztizko batez besteko puntuazioa (250) mutilena baino 5 puntu altuagoa da (245). 2015eko edizioan, guztizko puntuaziorik altuena zuen dimentsioa *entzumena* (253) da; idazmena (250) eta irakurmena (245) datoz ondoren. Sexuari dagokionez, neskek mutilek baino puntuazio hobeak lortu dituzte hiru dimentsioetan.

2015eko ebaluazio diagnostikoan erdiko mailan eta maila aurreratuan dagoen ikasleen profila, ehunekorik altuenean, hau da: familiak goi mailako ikasketak dituztenak (% 85,5), irakasmailarekiko adin-egokitasunean dagoena (% 79) eta ISEK maila altua duena (% 86,3). Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duen ikasleen profila irakasmaila errepikatu duten ikasleena (% 48,3), derrigorrezko ikasketak amaitu gabe dituzten gurasoena (% 49,0) eta ISEK maila baxua (% 62,9) dutenena da.

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2011 eta 2015. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm
[2] EAEn funts publikoak jasotzen dituzten bi sare daude: titulartasun publikokoa eta itunpekoa.
[3] EAEn hiru hizkuntza-eredu daude: A (irakaskuntzako hizkuntza gaztelania), B (irakaskuntzako hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D (irakaskuntzako hizkuntza euskara).

## Rs1.2.4.1 taula eta grafikoa:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|
| HASIERA Errendimendu maila | Guztira | **22,7** | **23,4** |
| | Neskak | 18,8 | 20,7 |
| | Mutilak | 26,4 | 25,9 |
| ERDIA Errendimendu maila | Guztira | **53,3** | **55,2** |
| | Neskak | 54,5 | 56,5 |
| | Mutilak | 52,1 | 54,0 |
| AURRERATUA Errendimendu maila | Guztira | **24,0** | **21,4** |
| | Neskak | 26,7 | 22,8 |
| | Mutilak | 21,5 | 20,1 |




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011 eta 2015.

## Rs1.2.4.2 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleek *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenenen bilakaera geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).**

| | 2011 | 2015 |
|---|---|---|
| A Publikoa | 203 | 212 |
| B Publikoa | 235 | 230 |
| D Publikoa | 241 | 238 |
| A Itunpekoa | 278 | 286 |
| B Itunpekoa | 259 | 258 |
| D Itunpekoa | 261 | 256 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011 eta 2015.

## Rs1.2.4.3 taula eta grafikoa:

**LHko 4. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan (*irakurmena, entzumena, idazmena)* lortutako puntuazio zuzenenen bilakaera, orokorrak eta sexuaren arabera.**

| | | 2011 | 2015 |
|---|---|---|---|
| Guztira | Guztira | 250 | 247 |
| | Neskak | 255 | 250 |
| | Mutilak | 245 | 245 |
| *Irakurmena* | Guztira | 250 | 245 |
| | Neskak | 253 | 247 |
| | Mutilak | 247 | 242 |
| *Entzumena* | Guztira | 250 | 253 |
| | Neskak | 256 | 256 |
| | Mutilak | 244 | 249 |
| *Idazmena* | Guztira | 250 | 250 |
| | Neskak | 256 | 255 |
| | Mutilak | 244 | 245 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011 eta 2015.

## Rs1.2.4.4 taula:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza.**

| | | Ikasle % | | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2011 | 2015 | | 2015 | |
| ISEK | Maila baxua | 15,1 | **16,3** | 37,1 | 53,2 | 9,7 |
| | Maila ertain baxua | 24,3 | **24,0** | 27,5 | 57,8 | 14,7 |
| | Maila ertain altua | 27,5 | **27,8** | 22,9 | 57,5 | 19,6 |
| | Maila altua | 33,1 | **31,9** | 13,7 | 52,3 | 34,1 |
| Egokitasuna | Ikasmaila egokia | 92,0 | **92,4** | 21,0 | 56,0 | 23,0 |
| | Ikasmaila **EZ** egokia | 8,0 | **7,6** | 51,7 | 45,5 | 2,8 |
| Titulartasuna | Publikoa | 50,7 | **50,9** | 29,7 | 56,4 | 13,8 |
| | Itunpekoa | 49,3 | **49,1** | 16,8 | 53,9 | 29,3 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrig. Ikask. bukatu **gabe** | 3,9 | **3,7** | 51,0 | 42,8 | 6,2 |
| | Derrigorrezko ikasketak | 14,7 | **12,7** | 37,1 | 53,6 | 9,3 |
| | Batxilergoa, HZ | 38,5 | **36,5** | 25,8 | 59,4 | 14,8 |
| | Goi mailako ikasketak | 43,0 | **47,0** | 14,5 | 53,6 | 31,9 |
| Jaioterria | Autoktonoa | 93,9 | **94,2** | 22,7 | 55,3 | 22,0 |
| | Atzerritarra | 6,1 | **5,8** | 33,5 | 54,0 | 12,5 |
| Familia-hizkuntza* | Euskara | 23,3 | **26,0** | 18,8 | 57,4 | 23,7 |
| | Euskara **EZ** dena | 76,7 | **74,0** | 24,9 | 54,4 | 20,7 |

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2011 eta 2015.

## Rs1.2.4.4 grafikoa:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Ingelesezko hizkuntza-komunikazioko konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua eta etxeko hizkuntza. 2015. urtea.**




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2015.